


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 jaitsi ziren 2009ko urrian aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2009ko urria, 2008koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %1,1 gutxitu dira

2009ko urrian, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,1 jaitsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*) Gehikuntza urriako urte artekoa da

2009ko urrian, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 jaitsi dira.

Urte artekoan, lehengaien kostua %2,1 jaitsi zen eta lan-eskuarena %2,4 igo.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdinak izan zituzten euren lehengaien kostuetan, hilen arteko terminoetan. Etxegintzak %0,3ko jaitsiera du aurreko hilaren aldean eta Obra Zibileko lehengaiak %0,1 igo dira. Azpisektore bien urteko bilakaeran ikusten denez, bada alderik, bietan tasak negatiboak badira ere. Etxegintzako lehengaien kostuak %1,4 jaitsi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %4,6 jaitsi.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan jaitsierarik handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Metalurgia (%-23,5), Energia elektrikoa eta gasa (%-15,6), Petrolio fintzea (%-14,1), eta Zurgintza (%-5,6), besteren artean. Aitzitik, urteko prezioetan (2009ko urria, 2008koaren aldean) igoerak izan dituzte Uraren (%7,4), Ez-metalezko mineralen (%2,1), Altzarigintzaren (%1,9) eta Ez-metalezko industriaren (%1,4) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA

2009KO URRIA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,0	-0,2	-1,1	-0,5
ERAIKINAK	116,1	-0,2	-0,7	-0,8
OBRA ZIBILA	115,7	0,1	-2,8	0,8
LEHENGAIEN KOSTUA	115,0	-0,2	-2,1	-1,2
ERAIKINAK	115,2	-0,3	-1,4	-1,6
OBRA ZIBILA	114,3	0,1	-4,6	0,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,4	0,0	2,4	2,4

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp